

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 20an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko bigarren laguntza deialdiaren dirulaguntzen onuradunen zerrenda onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko urriaren 19ko proposamenak dio:

Gaia: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko bigarren laguntza deialdiaren dirulaguntzen onuradunen zerrenda onartzea.

2022ko irailaren 20an egindako Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordearen akta, Aitor Gerenabarrena Osa, Nekazaritza-auzoak eta ingurumen Teknikaria eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen idazkariak, sinatua. Honela dio:

“Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko bigarren laguntza deialdiaren ebazpen proposamena (1059/esp)

2022ko maiatzaren 27an egindako auzo-alkate foroan, besteak beste, Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 1º deialdiaren ebazpena aztertu zen eta bide batez, bigarren deialdiaren oinarri arautzaileen zirriborroa aurkeztu zen.

2022ko maiatzaren 24ean Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, aipatu oinarri arautzaileak onartu ondoren, 2022ko maiatzaren 26an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko bigarren laguntza deialdia egitea onartu zituen.

Deialdia eta oinarri arautzailek 2022ko ekainaren 10ean argitaratu ziren GAOn, hortaz, eskaerak aurkezteko epe-muga uztailearen 22a arte izan da.

Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileen 5. artikulua xedatutakoaren arabera, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak dira Udalaren eskumenekoak zein ardurakoak diren lanak gauzatzea edo auzoetatik haratago herri onura duten egitasmoak laguntzea.

Aurkezten diren proposamen guztiek betetzen dute aipatu baldintza.

Laguntza deialdiaren II. eranskinaren 3. atalak xedatutakoaren arabera, deialdi honen baitan 2022/01/01tik 2022/12/31ra bitartean gauzatuak egitasmoak diruz lagunduko dira.

Laguntza deialdiaren II. eranskinaren 2. atalak xedatutakoaren arabera, deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura 32.230,53 €-koa da

Laguntza deialdiaren 9. atalak xedatutakoaren arabera, balorazio-batzordeak eskaerak aztertuko ditu eta, laguntzak banatzeko irizpideei jarraituz, puntuak esleitu ditu. Gero, zerrenda bat prestatuko du, behearazko hurrenkeran, eskaera bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, eta hurrenkera horri jarraituz emango dira laguntzak, harik eta funtsak bukatu arte. Puntuazio gehien duen proiektuari eskatutako ko-finantziario dirulaguntza esleitu zaio. Arau hau aplikatuz ateratzen den zenbatekoa urteko Udal aurrekontuetan jasotako diru-atala baino handiagoa bada, zerrendan dagoen hurrengoari emango zaio.

Balorazio-batzordeak osatutako zerrendan jasotako proiektu guztiek jasoko dute dirulaguntza harik eta Udal aurrekontuetako diru-atala agortu arte.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari jarraian jasotzen den diru-laguntza proposamena onar dezala, deialdiaren 9. atalak xedatutakoari baldintzatuta, hau da: deialdiak xedatutako epean memoria ekonomikoa deskribatzen duen likidazioa aurkeztu beharko da, non, egindakoen deskripzio laburra eta gastuak argi eta garbi azaldu beharko diren.

sarrera zk	Eskatzailea	gastu proposamena BEZa barne	gastuaren deskribapena	Ko-finantz. €-tan	Ko-finantz. %-tan	auzolana	Eskatutako laguntza €-tan	Herri onura irismena	Ko-finantz.maila %	Auzolana ptu-tan	Guztira	Emandako laguntza	Diru-atala
2728	Goribar	6.243,60 €	Berotegi baserrirako bidean biondak jartzea	4.000,00 €	64%	ertaina	2.243,60 €	22	33,0	22,0	77,03 ptu.	2.243,60 €	
2699	Larraña	5.759,60 €	Erbifa baserritik Kortaeerrekareko bidea txukuntzea	2.879,80 €	50%	ertaina	2.879,80 €	22	25,8	22,0	69,78 ptu.	2.879,80 €	5.123,40 €
2699	Larraña	2.299,00 €	Errekalde Torretxebarrirako bidean biondak jartzea	1.149,50 €	50%	ertaina	1.149,50 €	22	25,8	22,0	69,78 ptu.	1.149,50 €	6.272,90 €
2699	Larraña	5.094,10 €	Lizargarate baserrirako bidean biondak jartzea	2.547,05 €	50%	ertaina	2.547,05 €	22	25,8	22,0	69,78 ptu.	2.547,05 €	8.819,95 €
2351	Garagaltza	19.176,69 €	Garagaltza Handi eta Arregi baserrien arteko hornak	9.588,34 €	50%	ertaina	9.588,34 €	22	25,8	22,0	69,78 ptu.	9.588,34 €	18.408,29 €
2547	Santxolopeztegi	15.197,60 €	Etxabko Santue bide kontrako horma konpontzea	7.598,80 €	50%	ertaina	7.598,80 €	22	25,8	22,0	69,78 ptu.	7.598,80 €	26.007,09 €
2719	Olabarrieta	18.698,41 €	Narraspe-Enparantza argiteria jartzea	7.000,00 €	37%	ertaina	11.698,41 €	22	19,3	22,0	63,30 ptu.	0,00 €	37.705,50 €
2727	Uribarri	6.466,66 €	Aingerukoa baserri pareko horma atzeratzea	2.000,00 €	31%	ertaina	4.466,66 €	22	15,9	22,0	59,95 ptu.	4.466,66 €	30.473,75 €
2699	Larraña	2.964,50 €	Bideetako lurjausiak	1.482,25 €	50%	baxua	1.482,25 €	22	25,8	11,0	58,78 ptu.	1.482,25 €	31.956,00 €
2699	Larraña	1.996,50 €	Egur-kargalekua eta sagardo etxea aurreproiektua	998,25 €	50%	ez	998,25 €	22	25,8	0,0	47,78 ptu.	0,00 €	32.954,25 €
2699	Larraña	3.025,00 €	Errekalde Urubil bidea egokitzeko azterketa	1.512,50 €	50%	ez	1.512,50 €	22	25,8	0,0	47,78 ptu.	0,00 €	33.468,50 €
2699	Larraña	15.138,75 €	Larraña auzoko bideak garbitzea	7.569,38 €	50%	baxua	7.569,38 €	11	25,8	11,0	47,78 ptu.	0,00 €	39.525,38 €
2549	Lezesarri	7.188,61 €	auzoko oinezko bideak berreskuratzeko lanak	718,86 €	10%	baxua	6.469,75 €	22	5,2	11,0	38,16 ptu.	0,00 €	38.425,75 €
2699	Larraña	1.297,12 €	Olot irudiaren zaharberritzea	648,56 €	50%	ez	648,56 €	11	25,8	0,0	36,78 ptu.	0,00 €	32.604,56 €
2699	Larraña	1.928,74 €	errenezazentista irudiaren zaharberritzea	964,37 €	50%	ez	964,37 €	11	25,8	0,0	36,78 ptu.	0,00 €	32.920,37 €
2699	Larraña	3.025,00 €	Asiseko Frantzisko deunaren mihisea eraberritzea	1.512,50 €	50%	ez	1.512,50 €	11	25,8	0,0	36,78 ptu.	0,00 €	33.468,50 €
2699	Larraña	1.062,04 €	Ermittaren barruko argizatzea	531,02 €	50%	ez	531,02 €	11	25,8	0,0	36,78 ptu.	0,00 €	32.487,02 €
2699	Larraña	262,45 €	Ermittaren kristaldegia konpontzea	131,23 €	50%	ez	131,23 €	11	25,8	0,0	36,78 ptu.	131,23 €	32.087,23 €
2537	Madal-Garibai	6.547,31 €	Bikoitz jatetxean eraberritze lanak	3.273,66 €	50%	ez	3.273,66 €	0	25,8	0,0	25,78 ptu.	0,00 €	35.229,66 €
2723	Murgia	0,00 €	Agina baso pista konpontzeko lanak	0,00 €	0%		0,00 €		0,0		0,00 ptu.	0,00 €	0
2463	Lezesarri	4.308,21 €	Jaumendirako bide hasieran aparkalekuak egokitzea	0,00 €			4.308,21 €				0,00 ptu.	0,00 €	0
												32.087,23 €	143,30 €

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitazeko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez bada edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatu duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Ingurumen departamentuak kudeatzen dituen Auzotasun programa kontura emango diren dirulaguntzen 2022ko deialdia, 2022ko martxoaren 10ean (47. Zenbakia) argitaratu zen (BDNS (Identif.): 612614).

Azaldutakoagatik, eta Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Zerbitzuak eta Landa Garapen batzordeak egindako proposamenean zerrendatutako auzoei diru-laguntzaren onuradun izaera berrestea, 2022ko diru-laguntzen deialdia ebaztea eta 32.087,23€ko gastua baimentzea, arestian aipatutako xehetasunekin.

Bigarrena.- Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute dirulaguntza jaso dezaten.

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Diru-laguntza hauen onuradunak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta nekazaritza auzoak teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

